

Altza

Larraitz Garmendia (Ifnoa.: 391267)

Casares Kultur Etxean berrikuntza ugari egin dituzte udan. Honi buruz kultur etxeko liburutegiko arduraduna den Maite Lopetegirekin hitz egin dugu.

Liburutegian bi izan dira egin dituzuen aldaketa nagusiak, gazte txokoa eta adin txikikoen txokoa. Honela ezagutaraziko dira?

Egia esan, oraindik izenaren gai hori ondo definitu gabe daukagu. Gazte Txokoaren kasuan, etxeko langileek horrela deitzen dugu baina hau ez da izen aproposena.

Zergatik uste duzue Gazte Txokoa izan daitekeela?

Gazte jedearen jakinmina pizten dituen gaiak eta liburuak biltzen dituelako. Adibidez komikiak, musika liburuak, zinea, antzerkia... literatura mailan berriz, beldurra, intriga eta gazteak

«Gazte jendea ez zegoen eroso liburutegian»



Maite Lopetegi da liburutegiko arduraduna eta aspalditik ikusi zuen zerbait berria eta erakargarria jarri behar zela liburutegian gazteentzat.

Argazkia: Inonel Oregi

protagonista dituzten liburuak jarri ditugu bertan.

Noiz eta zergatik sortu zenuten Gazte Txoko hau?

Kurtsoarekin sortu genuen. Aspalditik ikusita genuen gazte jendea ez zela liburutegian eroso egoten. Honen arrazoia nahikoa argia

zen, gazteak protagonista dituzten liburuak haurrentzako beste liburuekin nahastuta zeuden. Orain, berriz, gazteei dagokien informaltasuna biltzen duen txokoa badute, hau da, aulkirik ez dago eta lurrean etzan edota eseri daitezke.

Zein da berrikuntza honen helburu nagusia?

Altzatarrei erakustea liburutegiak irakurketa ludi-rako aukera ere ematen duela. Maila honetan liburutegiaren lana hasi berria da, aurrerantzean beste arlo batzuetara ireki beharko dugu liburutegia: bideoa...

Adin txikikoentzako txokoa antzeko zerbait egin duzue?

Haurrentzako liburuak ez zeuden modu atseginean antolatuta. Azken finean hemendik aurrera haur txikiak liburutegian gustura egongo dira, honela, liburutegiarekin duten lehen kontak-tua aproposa izango da.

Zer lortu dute berrikuntza hauek?

Kalitatea hobetzea. Hel-duak hobeto daude, txikiak ere gauzak behar bezala dituzte eta gazteek beraiei eskainitako leku aproposa dute.

ZERRAILARIAK

24 orduak

- ZERRAILAK JARRI
- APURTU GABE ATEAK ZABALDU
- SEGURTASUNEZKO SARRAIL-MUINAK
- GILTZA-MAISUAK EGITEN DITUGU
- GILTZA KOPIAK

ESTERLINES KALEA, 15 BEHEA • PARTE ZAHARRA
Tfnoa.: 425694 / Fax.: 429335

HATXE

PAPER - LIBURU - DENDA

Eskolarako materialak

- Egunkariak
- Aldizkariak
- Bulegoko materialak

ARCCO AMARA • Tfnoa.: 47 52 53

ARIZALA J.M.

HORTZ-KLINIKA

MEDIKU ESTOMATOLOGOA

Odontologia orokorra
Enzien gaixotasunak
Implanteak - Ortodontzia
Haurren Hortz programa

SEGUROAK:
Lagun Aro - Diputazioa
Asisa - Previaisa
Ipresa eta abar

Ferrerias - Olaeta plaza, 5 solairu artea
Amara Berri Ikastetxearen parean:
Tfnoa.: 45 90 45

EUSKARAZ BADAIGU